



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIARIEN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Irakasten hasi zitzaien luze eta zabal”

2024ko uztailaren 21a  
Urteko 16. igandea (B)

### Markos 6, 30-34

Apostoluek, berriro Jesusengana bildu zirenean, egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesusek esan zien: “Zatozte zuek bakarrik leku gorde batera, eta hartu atsedeen-pixka bat”.

Asko baitziren joan-etorri zebiltzanak, eta ez zuten jateko ere astirik.

Orduan, bazter batera joan ziren, beraiek bakarrik, txalupaz. Baina jende askok ikusi zituen alde egiten, eta nora zihozten igarri ere bai, eta herri guztietatik leku hartara jo zuten lasterka, haiei aurrea hartuz.

Txalupatik jaitsi zenean, jendetza handia ikusi zuen Jesusek. Errukitu egin zitzaientz, artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan, eta irakasten hasi zitzaientz luze eta zabal.

Artzain gabeko ardiak bezala baitzebiltzan.

## ARTZAINIK GABEKO ARDIAK BEZALA

Jose Antonio Pagola

Bere ebanjelioa hots egitera Jesusek bidali dituen ikasleak gogobero itzuli dira. Presa bizia izan dute egin eta irakatsi dutenaren berri beren Maisuari emateko. Ematen du, Jesusek patxadan entzun nahi diela, eta «*leku baketsu batera joatera gonbidatu ditu berak bakarrik, apur bat atsedetera*».

Jendeak, ordea, hankaz gora jarri ditu haien asmoak. Herrixka guztietatik jo du jendeak haien bila. Ezin dute egin bilera baketsu hura, Jesusek bere ikasle hurbilekoenekin egin nahi zuen hura. Izan ere, ikasleak iritsi baino lehen, jendetzak hartua du leku hura guztia. Zer egin du orduan Jesusek?

Xeheki deskribatu du ebanjelariak Jesusen jarrera. Jesusentzat jendea ez da sekula neke. Arretaz erreparatu dio jendetzari. Badaki, izan ere, Jesusek erreparatzen, ez soilik lagun jakin eta hurbilekoei, baita jendetzari ere, ahotsik, aurpeirik eta inportantzia berezirik ez duten gizon-emakumeek moldaturiko jendetzari ere. Bat-batean harrapatu du errukiak Jesusen bihotza. Ezin izan du saihestu. «*Erruki izan zituen*». Bihotz barnean ditu guztiak.

Ez ditu bazter utziko sekula. «*Artzainik gabeko ardi bezala*» ikusi ditu: bidean gidatuko dituen gidaririk gabeko jende bezala, Jainkoaren ahotsa entzutea emango dion profetarik gabeko bezala. Hargatik, «*haiei patxadaz irakasteari ekin zion*», bere denbora eta arreta eskainiz, bere Hitz sendatzailea janaritzat emateko.

Egunen batean aztertu beharra izango dugu Jesusen, geure Jaun bakar horren aurrean, nola ari garen erreparatzen jendetza horri, nolako trataera ematen diogun, Elizatik pixkana ihesi doakigun horri; hain zuzen eta agian, gure artean Jesusen Ebanjelio entzuteko aukerarik ez duelako, gure hitzaldiek, agiriek eta agerpenek ezer gutxi adierazten diotelako.

Jende xumea eta ona, gudan desilusia baino aurkitu ez duena, gudan Jesusen errukirik sumatu ez duena. Jende fededuna: ez daki ez zeinengana jo, ez zein bide hartu, gudan sumatzen dutena baino Jainko gizatarrago batekin topo egin ahal izateko. Kristauak: isilik gelditu dira, ondo dakitelako beren hitza ez duela kontuan hartuko Elizan «nor bait» den inork.

Egunen batean aldatuko da, ordea, Eliza honen aurpegiara. Ikasiko du erruki beroagoz jokatzeko; alde batera utziko du bere hizketa eta emango dio jendearen sufrimena entzuteari. Bai, Jesusek ahalmena du gure bihotza eraldatzeko eta gure elkarteak eraberritzeko.